

# txintxarri



## TXINTXARRI aldizkariak, 30 urte!

Herritar guztiok gonbidatuta zaudete hiru hamarkada hauek ospatzeko festara igande honetan, urriak 1 / 2-5

### Dantzaren bidezko bidaiia bat

lazko ikasturte amaieran egin behar zuen emanaldia aurtengo kurtso hasieran aurrera eraman du Erketz EDT taldeak / 7

Bazkideekin jarraitu dute Lasartearra elkartearen 50 urteen ospakizunek; urrian amaituko dira / 6

**Urri erdialdean Usurbilen egingo duten Baterajotzearen gakoak, Asunak taldearen eskutik / 8**

**Ikasturtea hasi dute Udal Euskaltegiko ikasleek; euskararen bidaiia harrigarrian murgildu dira / 9**

**Nahia Zudairek brontzezko domina eskuratu du Ur Irekietako Munduko Kopan / 10**

**Ostadar SKT zein Texas Lasartearrako talde guztiek 2023-2024 denboraldia hasi dute / 12**

**Adinekoen Omenaldi Astea eta Azken Ostirala, agendako hitzordu nabarmen batzuk / 15**



txintxarri 30 urte! Zorionak TXINTXARRI! 30 URTE HAUETAN EUSKARAZ OHITU GAITUZUE!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia



- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!





Urriaren 6ko aldizkariko portadarako argazkia 12:00etan aterako dute. TXINTXARRI

## Igande honetan, den-denok Okendo plazara!

TXINTXARRI aldizkariak 30 urte beteko ditu urriaren 1ean. Zenbait eragilerekin elkarlanean, egitarautxo bat prestatu du urtemuga berezi hori herrian eta herritarrekin batera ospatzeko. Herritar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera

### Txintxarri

Sorpresa esamolde batekin (*Hara...!* irakur daiteke portadan) 1993ko urriaren 1ean hasi zen proiektua erabat errotuta dago Lasarte-Orian; horren erakusgarri, 30 urte beteko dituela igande honetan. TXINTXARRI aldizkariaren zintzarri hotsak entzuten dituzte bizilagunek, banatzaileek ostiralero hamasei orriko (eta zenbaitetan, 32koak) berripaperak etxez etxe eta dendaz denda banatzen dituztenean. Soinu izatez analogiko hori ere digitalizatuta dago [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atari digitalaren bidez; aurreko kurtsoan, gainera, inoizko datu onenak erregistratu ditu.

Esan dezakegu, beraz, baliabideak soberan ez baditu ere, herri komunikabide horrek nahikoa indar baduela 30 kandelak ufada batez itzaltzeko. TXINTXARRI-ren egitasmoa ez dago ulertzerik herri hau eta bertan bizi direnen herritarrik gabe, eta, horregatik, denok batera ospatzeko deia egin du lantaldeak.

### Okendo eta Jalgi

Erredakziotik metro eskasera dauden plaza eta kafe antzoki horretan aurrera eramango ditu zenbait eragilerekin elkarlanean prestatu dituen jarduerak. Ospatzeari ekiteko, nola ez, irri, kantu eta dantza

egingo dute Porrotx, Xumela korua eta Oaintxe in deu! txarangaren eskutik. Bertaratuko diren haurrentzat (eta gurasoentzat) oharra: aldizkariari buruzko marrazkiak ekarriz gero, umeek oparitxo bat jasoko dute trukean. Ondoren, urrian zehar TXINTXARRI-ren webgunean ikusgai jarriko dituzte marrazkiak.

Motorrak berotu ostean, erredakzioako lagunek urriaren 6ko aldizkariko azalera eramango duten talde argazki masiboa aterako dute Okendora bertaratutako guztiek, 12:00etan (puntualak izan, mesedez!). Beñat Arroyok aterako du irudia, drone batekin.

# txintxarri

## 1993-2023

### Urriak 1

30. urteurren festa!

# 30 urte!

**11.30** *Porrotxekin irri, kantu eta dantza.*

Xumela korua eta Oaintxe in deu txarangarekin (haurrek TXINTXARRI-ri buruzko marrazki bat ekartzen badute oparitxo bat eramango dute trukean). Okendo plazan.

**12.00** *Argazki masiboa herritarrekin.* Okendo plazan.

**12.15** *Erakusketaren inausurazioa.* Jalgi tabernan.

**12.30** *Topa-pintxo.* Jalgi tabernan.



Argazki erraldoi horren ostean, txarangaren atzetik Jalgi joango dira hala nahi duten guztiak. Barruan TXINTXARRI-ren hiru hamarkadako ibilbidea errepa-satzen duen portaden erakusketak bat izango dute, eta, kanpoan, pintxoak. Une hori baliatuko dute bertaratutakoek elkarrekin topa egiteko.

Esan bezala, lantaldeak herritar oro gonbidatzen du egitarauan jasotako ekimenetan parte har-

tu eta 30 urteak elkarrekin ospatzera. Norbanako, elkarte, eragile eta erakunde, guztion artean lortu dugu Lasarte-Oriaren berri gertutasunez eta euskaraz ematea horrenbeste denboraz. Festa giroko topaketa hori balia bezate denek pilak kargatu, egitasmoak duen garrantziaz eta dimentsioaz jabetu eta udalerria elkarrekin eraikitzen jarraitzeko indarrak hartzeko.

Zorionak!  
txintxarri 30 urte!

## Carrefour express

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



# "Etxean jasotzen dugun aldizkaria da, Lasarteko notiziak biltzen dituenena"

## UNAI BERASATEGI HERRITARRA

TXINTXARRI-ren egun berean beteko ditu urteak. 20 urteko aldea dago bataren eta bestearen artean, eta adin tarte hori baliatu nahi izan dugu, aldizkaria ezaguna duen ala ez galdetzeko

### Txintxarri

10 urte beteko ditu Unai Berasategi TXINTXARRI-k 30 beteko dituen egun berean: etzi, urriaren 1ean. Hala jakin dugu, bere ama Leire Berasategi bidalitako mezu bati esker. Izan ere, aldizkariaren urtebetetze egun berean jaiotako lasarteoriatarrak ba ote zen galdegin genuen sare sozialetan, eta horrela izan dugu gazte-oxoaren berri. 20 urteko adin tarte dago herritarren eta aldizkariaren artean, baina gaztea izanagatik ere, aukera baliatu nahi izan dugu begirada horretatik aldizkaria nola bizi duen galdetzeko. Hau da kontatu diguna.

### Ezagutzen al duzu TXINTXARRI? Zer da?

Bai ezagutzen dut. Etxean jasotzen dugun aldizkari bat da; Lasarte-Oriako notiziak biltzen dituena.

### Uste duzu garrantzitsua dela lasarteoriatarrek horrelako aldizkari bat izatea?

Bai garrantzitsua da herritarrentzat, bizi diren herrian zer gertatu den jakiteko aukera ematen baitie.



Unai, 30 urte hauean argitaratutako zenbait aldizkari aurrean dituela. TXINTXARRI

### Irakurtzen al duzu tartetxoren batean?

Ez dut tartetxorik hartzen irakurtzeko.

### Inoiz atera al zara bertan?

Koronabirusaren garaian atera nintzen, beste bi lagunekin batera; eskolara maskara jantzita joan behar garaian. Horren inguruan galdetu zigun kazetariak; jakin nahi zuen nola sentitzen ginen.

### Eta nolako esperientzia izan zen? Gustatu zitzaizun zure burua hor ikustea?

Polita izan zen aldizkarian ateratzea, gustatu zitzaidan bai.


### Aldizkariak zure egun berean beteko ditu urteak. Zuk 10, eta TXINTXARRI-k, berriz, 30. Urte asko direla iruditzen zaizu?

Bai, dezente. Agian etorkizuneko TXINTXARRI aldizkariaren irakurlea ere izango zara.

Beharbada bai. Lasarte-Orian zer gertatu den ikusteko, kirol agenda kontsultatzeko, eta abar.

## 30 urteko ibilbidea

Hamabostekaritik gaur egunera arte



ZURE AZALA NEGURAKO PRESTATZEKO GARAI ONA DA!

**MAITE**

ESTETIKA ARETOA

Zorionak! txintxarri

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrokoa
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pulsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

ZERBITZU MISTOA

Usitin kalea z/g · 943-37 08 45 LASARTE-ORIA

**Uraitz, s.l.**

Igeltseritza Orokorra

Zorionak! txintxarri

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA
- GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN

693 05 93 92 / 943-56 66 40 • [uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) • [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)

BULEGOA: Hipodromo etorb. 10 behea, 3. LASARTE-ORIA



# Herriaren historia zati bat, herritarren eskura

TXINTXARRI-ren artxiboaren zati handiena, 1993ko urritik 2015eko ekainera artekoa, Udal Liburutegian dago gaur egun. Herritarrek aukera dute kontsultatu nahi dituzten zenbakiak liburuzainei eskatu eta bertako geletan patxadaz irakurtzeko

## Txintxarri

Gure herriaren historiaren aro garrantzitsu batetan barrena bidaiatzeko aukera dute lasarte-oriatarrek, izan ere, TXINTXARRI aldizkariaren hemerrotekaren zati handiena Manuel Lekuona Kultur Etxeko 3. solairuko liburutegira eraman dute, duela hilabete batzuk eraisten hasi ziren Erribera kaleko lokaletik aterata (komunikabide horren erredakzio ere izan zen hasierako urteetan). Ttakun Kultur Elkartearen eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuaren artean adostu dute hori.

Lasarte-Orian 1993ko urriaren 1etik 2015eko ekainaren 22ra arte gertatutakoaren berri izan ala gogoratu nahi dutenek, esan bezala, kultur etxera joan behar dute, 3. solairura igo eta liburutegira sartu, ordu tarte hauetan: astelehenetik ostiralera, 09:30etik 13:00etara edo 16:00etik 20:30era; eta, larunbatetan, goizeko ordutegian, urriaren 7tik aurrera.

Prozedura simplea da: liburutegiko harrerara joan eta liburuzainari eskatzea zein urtetako zein zenbaki irakurri nahi duten. Eskuin aldeko zatiduran gida bat argitaratu dugu, irakurleentzat lagungarria izan daitekeelakoan. Kontsultatu nahi duten



Liburutegiko 3. solairuan gordeta dago artxiboaren zati handiena. TXINTXARRI

aldizkariak liburuzainak eman-gozio herritarrari, alboetako batean dagoen ikasketa gelan lasai asko irakur eta berrikus ditzan.

## Mugarri historiko ugari

Zenbat aldatu ote da Lasarte-Oria hiru hamarkada hauetan? Galdera interesgarria da, pentsatzeko tarte bat hartu eta gertakari zerrenda luze bat egitekoa. Eraitsiak izan diren eraikinak, tokiz aldatu dituzten zuhaitzak (nola ahaztu Okendoko palmondoa!), garai bateko San Pedro

Jaien eta gaur egungoen alde-raketa, manifestazioak, proiektu eta elkarten sorrerak, urteurrenak, elkarrizketak, testigantzak, kronikak, erreportajeak... eta beste gauza asko eta asko, gertutasunez eta euskaraz kontatuta, unean-unean egitasmo honen partaide izan direnen eskutik. Esan bezala, 1993ko urriaren 1etik 2015eko ekainaren 22ra artekoak kontsultatu ahaliko dituzte herritarrek liburutegian. Bestalde, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian 2008tik gaur egunera artekoak dituzte eskuragai.

## Urte eta zenbakiaren gida

Ez baduzu zehatz-mehatz gogoratzen zein urtetako zein aldizkari irakurri nahi duzun, gidatxo labur honek lagun diezazuke liburuzainei eskaera egiteko orduan.


### Argitaratze urtea eta zenbakiak (biak barne)

- 1993 1.gotik 7.era arte.
- 1994 8.etik 29.era arte.
- 1995 30.etik 51.era arte.
- 1996 52.etik 73.era arte.
- 1997 74.etik 94.era arte.
- 1998 95.etik 115.era arte.
- 1999 116.etik 136.era arte.
- 2000 137.etik 165.era arte.
- 2001 166.etik 208.era arte.
- 2002 209.etik 253.era arte.
- 2003 254.etik 339.era arte.
- 2004 340.etik 420.era arte.
- 2005 421.etik 500.era arte.
- 2006 501.etik 582.era arte.
- 2007 583.etik 662.era arte.
- 2008 663.etik 747.era arte.
- 2009 748.etik 829.era arte.
- 2010 830.etik 910.era arte.
- 2011 911.etik 989.era arte.
- 2012 990.etik 1.068.era arte.
- 2013 1.069.etik 1.141.era arte.
- 2014 1.142.etik 1.215.era arte.
- 2015 1.216.etik 1.256era arte\*.

\*2015eko ekainaren 22ra arteko aldizkariak eraman ditugu Udal Liburutegira, oraingoan. Gainerakoak Ttakun Kultur Elkartearen bulegoan (Geltoki kalea 4, behean) ditugu gordeta.

### 2008tik aurrerako aldizkariak, digitalizatuta

Manuel Lekuona Kultur Etxeko 3. solairuan dagoen liburutegira joatea ez da TXINTXARRI-ren artxiboan arakatzeko aukera bakarra, izan ere, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atari digitaleko Hemeroteka atalean topatuko dituzue 2008tik hasi eta gaur bertan, hilak 29, kaleratu dugun 1.640. zenbakia. Lerro hauen azpian topatuko duzuen QR kodea eskaneatu besterik ez duzue aipatu aldizkari horiek guztiak kontsultatzeko.



# txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

**Eskerrik asko bide luze honetan TXINTXARRI egiten lagundu diguzuen guztioi!**



# Herrira jalgi zenetik, 25 urte

TXINTXARRI-ko artiboan arakatzeko tarte bat hartuz gero berehala topa daitezke harribitxiak: Jalgi kafe antzokiaren eta Ttakun Kultur Elkartearen gaur egungo bulegoa inauguratu zituztenekoa, esate baterako. 1998ko urtarrilaren 24an zabaldu zituen ateak Geltoki kaleko 4. zenbakiko espazio horrek, "euskararentzako gun e berri bat" izateko asmo eta ilusioz. Gogotik egin zuten lan makina bat herritarrek proiektu hori aurrera atera ahal izateko. Eta nola diren gauzak: mende laurden geroago, besteak beste, esku artean duzun aldizkaria bulego horretan prestatzen du erredakzioak, eta 30. urteurreneko festaren zati garrantzitsu bat Jalgin bertan ospatuko du.



Bazkari eta festa ederra egin zuten Landaberri ikastolako gimnasioan. TXINTXARRI



Gogotik egin zuten lan herritarrek. TXINTXARRI



Jalgiren logotipoa jartzen. TXINTXARRI



Geltoki kaleko 4. zenbakia, duela 25 urte. TXINTXARRI



Den-dena prest zegoela egiaztatzen. TXINTXARRI



Sagardotegi kalea jendez lepo bete zen inaugurazioaren egunean. TXINTXARRI

**INPRENTA**  
offset eta digitala

**DISEINU GRAFIKOA**

**DISEINU EDITORIALA**

**aldizkariak**  
IRUDI KORPORATIBOA  
**kartelak**  
ESKU-ORRIAK  
**katalogoak**  
AGENDAK EGUTEGIAK  
koadernoak  
PAPELERIA  
liburuak

Zorionak!  
txintxarri 30 urte!

**antza**

# Bazkideekin jarraitu dute ospakizunek

Aste gastronomikoari segida eman diote Lasartearra elkartekoek bazkidearen eguna ospatuta. Sortzaileak, izandakoak, direnak eta joandakoak, denak presente eta protagonista izan dira. Urriaren 28an itxiko dituzte 50 urteen ospakizunak, kontzertu batekin

## Txintxarri

Ez dauden bazkideak gogoratu zituzten lehenik. Zumaburuko Arantzazuko Ama elizan meza egin zuten haien omenez, bereziki, aurten hildako biak aipatuta. Erketzeko bi kidek Agurra dantzatu zuten elizkizunaren amaieran, txistularien doinua jarraituz. Irteeran, arkuekin eta ezpatekin zain zituzten gainerako dantzariak. Denak irten eta elkar agurtu ondoren, Lasartearrako kideek eta Erketzekoek talde argazkia egin zuten eliza atarian. Handik elkarrekin joan ziren Isla plazaraino. Han jarritako puzgarrietan jolasean zebiltzan haurrak. Beraiekin zeuden helduek edo bertaratu zirenek aukera izan dute dantzarien emanaldiaz gozatzeko. Lasartearrako bazkideak ilaran jarri ziren, haien parean, musikariak, eta tartean, dantzariak. Zenbait piezaren ondoren txalo artean bukatu zuten saioa. Bentzaharreko Mutiko Alaiak taldeak hartu zuen lekukoa eta poteo



Avenidako sukaldari Yon Mikel Rodriguezek ibxi zuen aste gastronomikoa. TXINTXARRI

girotuari ekin zioten, bazkalordura arte.

Erribera kaleko elkarteetan zain zituzten Agustin Valdivia alkattea, beste bazkide batzuk, eta elkarteetako ordezkariak. Guztira, 75 bat. Menu goxoa jan zuten giro apartean. Hasierako gisa zainzuriak, hestekiak eta

plantxan egindako otarrainxkak; gero, zapoa muskuiluekin eta azpizuna piper gorriekin, eta bukatzeko, kremaz betetako hostopila eta izozkia.

Ostean, oroigarriak banatu zituzten. Elkartearen sorrera paperak egiten lagundu zuen Lourdes Sarabia eta Lasartea-



Lasartearrako bazkideak eta Erketz EDTko dantzariak, eliza atarian. TXINTXARRI



Valentina Gainza eta Lourdes Sarabia, elkartearen oroigarriekin. TXINTXARRI

rraren armarrria eskuz brodatu zuen Valentina Gaiza izan ziren lehenak. Alkatearen txanda izan zen jarraian, emandako laguntza gutzia eskertzeko. Gelditu gabe, sorrera egunetik bazkide diren eta elkarteari eutsi dioten bazkideak aintzatetsi zituzten, eta, bukatzeko, zenbait elkartetako

ordezkariekin oroigarriak trukatu.

Lasartearrako kideek urriaren 28an itxiko dituzte mende erdiaren ospakizunak. Alboka Abesbatzak eta Zero Sette Akordeoi Orkestrak kontzertu bateratu bat emango dute kultur etxean, 19:00etatik aurrera.



TXINTXARRI

## Nazioarteko zirkuitua, gogoan

San Sebastian Circuit Spirit VI. Rallyaren partaideak Lasarte-Orian barrena ibili ziren hilaren 23an. Andoaindik Hipodromora iritsi eta geldialdia egin zuten, ordu erdiz gertutik ikusteko aukera emanez herritarrei. Ondoren, Oriarantz abiatu ziren, Hipodromo

etorbidea eta Kale Nagusia zeharkatuta. Zirkuitu ibilbidean erregularitasun proba egin zuten. 1923-1935 urteen artean gure herrian izandako nazioarteko auto zirkuitua gogora ekarri zuten, hain zuzen ere, 100 urte bete dituenean.

## Ttakun KEren eta udalaren zenbait programa, hastear

Solaskide, Plaza Dantza eta Jantzi tradizionalen ikastaroa aurrera eramango dituzte urritik aurrera

### Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak elkarlanean aurrera eramaten dituzte Solaskide nahiz Plaza Dantza egitasmoak eta Jantzi tradizionalen ikastaroa. Hiruei ekingo diete laster, urri hasieran. Izen emateak irekita daudela gogorarazi dute.

Euskaraz hitz egiteko usadioa dutenak ohitura ez dutenekin elkarteetan datza Solaskidek. Urriaren 1etik 31ra inskriba daitezke partaideak, Ttakunen bulegoan nahiz herriko euskal-

tegiatan (Udal Euskaltegia eta Munterri AEK) topatuko dituzten eskuorrien bidez.

Jantzi tradizional dotore askoak egingo dituzte aipatu ikastaroan, abendura bitarte, Emakumeen Zentroan. Saioak astearte eta ostegunetan izango dira, 15:30etik 17:30era, urriaren 3tik aurrera.

Azkenik, euskal dantzak ezagutu eta horietan trebatzea du xede Plaza Dantza programak. Urriaren 3an hasiko da hori ere. Entseguak astearteetan egingo dituzte Sasoeta ikastetxeko gimnasioan, 20:00etatik 21:30era.



Jendetza bertaratu zen Okendo plazara, Erketzeko dantzari eta musikarien emanaldiaz gozatzena. TXINTXARRI

# Ikasturte amaieran behar zuena, hasieran

lazko kurtsoko emanaldia aurtengoko irailean aurrera eraman du Erketz EDT dantza taldeak, orduan egin ez zuten eguraldi ona lagun. Ordubete luzeko erakustaldiaren ondoren, ikus-entzuleek txaloeekin agurtu dituzte dantzari eta musikariak

## Maitane Aldanondo

Sanpedro aurretik ikasturtean landutakoa erakutsi ohi die Erketz Dantza Taldeak herri-tarrei. Ekainean, ordea, eguraldi txarrak ez zien horretarako aukerarik eman. Hilaren 23an jarri zuten orduan aurrera eraman ezin zutena egiteko hitzordua, eta badaezpada ere, kultur etxea prest zuten goizeko lainoak

auri gehiagorekin etorri izan balira.

Udazkena hasi berri bada ere, arratsaldeak ekaineko ohikoa zirudien, buruan duguna eguzkitua eta epel-beroa bada. Duela hiru hilabete ez bezala, halakoa izan zen eguraldia, eta hori lagun zutela ordubete luzeko erakustaldia egin zuten dantzariak. Plazan jarritako aulkiek eta hesiek osa-

tutako gunea izan zuten agertoki eta eserita edo zutik, herritar ugari izan zuten begira.

Lierni Rekondok aurkeztu zituen Euskal Herria zeharkatu zuten bidaiaren piezak. Gipuzkoatik abiatu ziren. *Agurra*, *Desafioa* eta *Ezpatadantza* Nafarroara bidean jarri ditu. Erronkariko *Ttun-ttun* eta Otxagabiko dantzekin, Ipar Euskal He-



Agurra dantzatzu ekin zioten emanaldiari. TXINTXARRI



Ipar Euskal Herriko makil jokoak ekarri zuten Lasarte-Oriara. TXINTXARRI



Antolaketa, jantzi eta molde desberdinetan aritu ziren dantzan. TXINTXARRI

rrira iritsi ziren kabalkadako martxak, makil jokoak eta kontradantzak ekarrita.

Binaka, taldean, emakumeak bakarrik, gizonekin batera... antolaketa, jantzi eta molde desberdinetan aritu ziren dantzan. Eta ez dantzan bakarrik.

Nafarroako zatia amaitzean, kideetako batek musikariekin batera *Iluntzean* kanta abestu baitzuen eta ikusleetako batzuek lagundu zioten. Tarte bakoitza amaitzean bezala, txaloeekin agurtu zituzten dantzari eta musikariak bertaratutakoek.

## Lehen lana argitaratuko du Maialen Aristegik: 'Ezmezean'

'Bilatu gabe aurkitutakoak' aurrerapen abestia entzungai jarriko du zenbait plataformatan gaur, hilaren 29an

### Txintxarri

Maialen Aristegi kantautore lasarteoriatarrek *Ezmezean* izeneko maketa ondu du, grabatutako bere lehenengo sortuntza lana: lau abestik osatzen dute lana eta aurrerapen kan-

tua, *Bilatu gabe aurkitutakoak*, gaur bertan jarriko du entzungai zenbait plataformatan (YouTube, Bandcamp, Soundcloud, eta abar), hilak 29, ostiralarekin. Gainerakoak, berriz, urriaren 2an.

Horrez gain, fisikoki ere eskuratu ahalko dute *Ezmezean* herritarrek, CD nahiz kasete formatuetan. Maketa eskuratu nahi dutenek egilearekin jarri behar dute harremanetan Instagram (@txatxamatxalinatxu) edo Twitter (@ezin\_esan) sare sozialen bidez, edo, kalean ikusiz gero, berari eskatu, zuzenean.

Artikulu hau ilustratzeko erabili dugun irudia Maialen Uribe herritarrena da; berak diseinatu du Aristegiren estreinako lanaren azala.



Maialen Uribek diseinatu du 'Ezmezean'-en azala. MAIALEN URIBE



Buruntzaldeko Neska\* Gazteen Taldeko kideak, Elizondoko BATERAJOTZEAN, 2021ean. ASUNAK TALDE FEMINISTA

# "Elkargune fisiko bat baino askoz gehiago da"

Usurbilen egingo dute Euskal Herriko Neska\* Gazteen BATERAJOTZEA, urriaren 13tik 15era, 'Utopiak lehertzeraino' lelopean. Eskualdeko talde feministek egitasmo horren gakoak eman eta herritarrak animatu dituzte antolatutako ekimenetan parte hartzera

## Asunak talde feminista

TXINTXARRI-rekin harremanetan jarri da Asunak Lasarte-Oriako neska\* gazteen talde feminista, urriaren 13tik 15era Usurbilen egingo duten BATERAJOTZEAREN harira informazioa emateko, Usurbilgo Matrakak Talde Feministari egindako elkarrizketa baten bidez.

## Zer da baterajotzea?

Elkargune fisiko bat baino askoz gehiago da. Tailerrak, mahai inguruak, otorduak, kontzertuak... eta askoz gehiago. Euskal Herriko txoko guztietako gazte feministak elkartu nahi dituen egitasmoa da, elkarrekin ikasi, eztabaidatu, dantzatu eta konspiratzeko. Azken finean, neska\* gazteon mugimendu zabalaren elkargune nazionala da.

Euskal Herriko neska\* gazteok elkartu eta eztabaidarako espazioa da, elkarrekin Euskal Herria feminista irudikatzen eta erakitzen tokia, saretu eta antolatzen aukerak eskaintzen dituen. Aurten, *Utopiak lehertzeraino* lelopean, Usurbilen elkartzeko gara urriaren 13tik 15era bitartean.

## Nondik gatzoz?

Egia da BATERAJOTZEAREN forma-tua errepikatuko dugun bigarren aldia dela, baina asko dira aurrez antolatutako egitasmoak. Badi-

ra urte batzuk neska\* gazte subjektua antolatzeari ekin genionetik.

2016an egindako Eraikuntza lanetan ari gara eta Barañainen burututako GaztEraiki topaketan emandako asanbladetatik sortutako proiektuak izan ziren lehenak. Feminismoaren bueltan bildu ginen 150 bat neska\*, hiru proiektu genituelarik esku artean: biltegi digitala, talde osasun gida eta gazte udaleku feministak. Hala ere, emandako eztabaidetan zenbait korapilo gelditu zitzaizkigun. Horiek askatzen hasteko Udaleku Feministak izan genituen lehenengo parada. Neska\* gazteok elkar ezagutzeko eta batera hausnartzeko espazio feminista bat sortzea helburu, 2017ko irailaren 1etik 4ra Ozaetako Garaion Sorgingunean 100 neska\* gazte batu ginen. Aurreko Udalekuen arrakasta ikusita, 2018ko abuztuaren 30ean II. Udaleku Feministak antolatu genituen berriro ere Ozaetan. Lau egunez

**"GURE AURTENGO  
ERRONKA AZAROAREN  
3OEN GURE  
FEMINISTA  
OROKORRA DA"**

hainbat ekintzaz beteriko egitarauaz gozatzeko aukera izan genuen bertaratu ginen Euskal Herriko neska\* gazteok, tailer, hitzaldi eta mahainguruez osatutakoa. Gerora etorri dira 2019ko Egin dezagun topa! jardunaldiak Lizarran, 400 neska\* gazte baino gehiago batu ginenean; 2021ean Elizondon aurrera eramanez BATERAJOTZEA, pandemiaren ondoren gure mugimenduaren oinarriak berriz ere sendotzeko; eta ia azkeneko udalekuak, barne eztabaidetan sakondu eta nukleoa are gehiago trinkotzeko.

## Zein da aurtengo erronka nagusia?

Aurten erronka berri bat dugu Mugimendu Feministako kideok. Greba feminista orokor bat izango dugu azaroaren 30ean, egungo sistema goitik behera aurkaratzen duena. Gazteok lanuzte horren antolakuntzan ezinbestekoak izanik, zaintza sistema iraultzea helburu duen ekintza hori indartu eta gazte perspektibatik proposamen propioak egikaritu nahiz antolatzeko, elkargune bat beharrezkoa dugu. Paraleloki, ezinbestekoa dugu sistema bortitz eta distopiko honetan utopia berriak irudikatu eta honetarako tresnak sortu eta partekatzea, erresistentzia eta alternatiba berrietan sakontzea, eztabaida estrategikoei

ekitea nahiz hausturak kolektiboki antolatzeko.

## Zergatik orain eta hemen BATERAJOTZEA? Eta zergatik Usurbilen?

BATERAJOTZEA ez dugu noiznahi eta nonahi planteatu. Izan ere, testuinguruak zeharkatutako egitasmoa da, Greba Feminista Orokorraren atarrietan kokatu duguna. Ez da ausazko erabakia izan. Izan ere, honi begirako ekarpena artikulatzeko espazio gisa irudikatzen dugu. Oraingo honetan, zaintzaren auzia eztabaidatzea dagokigu, guk ere honen inguruan badugulako zer esana. Gaztetasunetik ekarpena egin nahi diogu zaintza problematizatu eta hau sozializatzeari, eta bide horretan noski, neska\* gazteok ahots propioa dugu. Zaintza neska\* gazteok nola zeharkatzen gaituen hausnartu nahi dugu ere. BATERAJOTZERA hilabeteetako lanketa batekin heltzen gara. *Zaintzarik gabe, bizitarik ez!* dinamika martxan jarri genuen otsailaren 10ean egindako ekimenarekin. Horren ostean, beste hainbat mugarritan ere zaintzaren gaiarekin neska\* gazteok bizi dugun problematika sozializatu dugu.

Bestalde, aurtengo BATERAJOTZEA Usurbilen egiteak neska\* gazteon mugimendua Buruntzaldean trinkotzeko eta Gipuzkoan azkenaldian sortu diren talde ugariak ezagutzeko aukera ematen digu.

## Zergatik animatzen dugu jendea BATERAJOTZEAN parte hartzera?

Gazte feministok beharrezkoa dugu antolaketa propio bat, gure egoera problematizatu eta proposamen propioek ere tokia izan dezaten, gure mundu ikuskera zabaldu dezagun eta iritziz sortzaile izan gaituzten. Horregatik, Euskal Herriko gazte feministontzat espazio bat sortuko dugu, greba bera indartu eta antolatu, nahiz eskuarteantolatu eztabaidetan sakontzeko sistema iraultzeko proposamenak irudikatu eta artikulatzeko, utopiak pentsatzeko eta hausturak kolektiboki antolatzeko.

## BATERAJOTZEA eta gero, zer?

Bertan sortutako eztabaidak eta indarra herri, auzo eta uni-

**"EUSKAL HERRIKO  
GAZTE  
FEMINISTONTZAT  
ESPAZIO BAT  
SORTUKO DUGU"**

bertsitateetara eramango ditugu. Ez da Usurbilen hasi eta bukatuko den zerbait, aurretik dator eta jarraipena izango du. Udazkenean datorren greba feministara begira jartzeko eta bertan neska\* gazteok izango dugun paperaz hausnartzeko balioko digu. BATERAJOTZEAN metatutako harreman, indar eta ilusio guztiak grebarako azken bultzada izan daitezen nahiko genuke, prozesu horren motore baikara. Greba ostean ere ez da ezer bukatzen. Gure auzo eta herriak feminismotik eraldatzen segiko dugu.

## Zer egitarau antolatu dugu?

Egitarau zabala prestatu dugu, eduki aldetik, plano desberdinak uztartzen dituen: zaintzaren auziari ertz ezberdinetatik heldu nahi diogu, horren izaera transbertsala berretsi eta interseksionalitatearen ideia sakontzeko; Mugimendu Feministan indarra hartzen ari diren gaiek tokia izango dute, lodifobiaren aurkako feminismoa edo subjektuaren eztabaidak, kasurako; marko teorikoaren eta borrokan lurreratu praktikoaren uztartu nahi ditugu, utopiak erakitzeak gakoak leku eginez; eta, noski, greba feminista orokorraz eta horretan neska\* gazteok izango dugun paperaz hitz egiteko parada izango dugu, mahai inguru zentralerako batekin.

Hitzaldi eta mahai inguruetatik harago, bestelako tailer eta aisialdi espazioz osatutako egitarau zabala osatu dugu, baita amoreari eta musikari ere tartea eskainiz. Gauean aisialdi eskaintzak aurrera eramango ditugu, BATERAJOTZEAREN helburuak badirelako ere, azkenean, elkar ezagutu, dantzatu eta sareterako aukerak ematea.

## Zer-nolakoa izan da prestaketa?

Antolakuntzan dabiltzan kide guztiez gain, neska\* gazte taldeak dira BATERAJOTZEAREN aurrelanketarako zutaberik nagusienetariokoa. Azken finean, auzo eta herrietan dagoelako muina. Egitasmoa aurkeztu, sozializatu, harremanak egin... Balioan jartzekoa da egunerokoan egiten den lana. Eta noski, BATERAJOTZEA ez litzateke posible montaje eta desmontajearen zein asteburuan zeharreko txandetan egongo diren ehundaka neska\* gazteei esker. Autogestioz eta antolakuntzaz erakitako egitasmoa izango da.



# Euskararen bidaia harrigarria hasi dute

Udal Euskaltegiak hasi du 2023-2024 ikasturtea. Aurrez aurreko eskolak hartuko dituzte ikasle batzuk, eta sareko ikasketa prozesua egingo dute beste batzuk. Izen emate epea a,maoyi dena arren, interesdiunek oraindik matrikula egin dezaketela ohartarazi dute

## Txintxarri

Aurtengo ikasturteari hasiera emateko leloa aurkeztu dute. *Euskara, bidaia harrigarria!* aukeratu dute, izan ere, euskara ikasteko izena eman duten ikasleek "bidaia bati" ekingo diote, euskaltegiko ordezkarien arabera. "Mundu berri bat ezagutzeko eta gozatzeko aukera" izango dutela: "Go-goan izan herri eta kultura guztietan hizkuntza izaten dela altxorrik preziatuena".

Euskaltegiko arduradun eta irakasleek badakite ikasle bakoitzaren helburua desberdina dela: "Batziek hizkuntza eskakizun bat nahi dute, eta beste batzuek, ordea, lagun, lankide edo familia giroan hitz egiteko, atzenduta dutena berreskuratzeko edota hizkuntza ohiturak aldatzeko. Ikasleek "esperientzia handiko irakasle profesionalak" izango dituzte alboan.

Bestalde, egunerokoa eta ikasketak uztartzea "oso zail" egiten dela jakinik, ikasleei "txandaka" aritzeko aukera eskaini diete;

maila bakoitzean hiru talde izango dituzte (goiz, eguerdi eta iluntzean) eta horrek bideragarri egiten du euskara ikastea beste eginkizun batzuekin.

Udalaren aldetik ere, laguntza handia jasoko dute ikasleek. hain zuzen ere, ikastaroa amaitzean %85eko asistentzia bete badute, proportzio berean berreskuratuko dute matrikulan ordaindutakoa. Gainera, mailaren bat gaindituz gero, %15 emango dio HABEK. Beraz, ikasleak B2 mailara arte euskara doan ikasteko aukera izango du. Aurten, gainera, bada beste berrikuntza bat. 2005, 2006 eta 2007an jaiotakoek C1 maila prestatzeagatik 20 euro besterik ez dute ordainduko.

Herritarrak matrikulatu egin daitezke oraindik. Horretarako, eta edozein zalantza argitzeko Udal Euskaltegiarekin jarri behar dira harremanetan, honako bide hauen bitartez: telefonoz 943-36 16 21 edota [euskaltegia@lasarte-oria.eus](mailto:euskaltegia@lasarte-oria.eus) helbidera idatzita.



Euskaltegiko ordezkariak eta udalekoa, ikasleekin batera. TXINTXARRI

Lasarte - Oria 2023

ferraren bila  
20000€  
saritan • en premios

Jolastu Lasarte-Oriatik zehar urre-koloreko ferren bila!

Irailaren 18tik Urriaren 8ra



Eskaneatu QR kode hau edota sartu:  
<http://www.aterpea.es/ferrarenbila.html>  
Kontsultatu promozioaren oinarriak eta establezimendu parte-hartzaileen zerrenda.



TXINTXARRI

## Bertso eskolako atepak, zabalik

Erra bertso eskolak ekin dio ikasturteari eta kideek jakinarazi dute taldearen atepak zabalik dituela haiekin elkartu eta bertso gintzan murgildu nahi duen edonork. Eskolarekin bat egiteko interesa dutenek [earrabortsoeskola@gmail.com](mailto:earrabortsoeskola@gmail.com) helbide elektronikora idatzita jarri behar dute beraiekin harremanetan.



# Zudaire, hirugarren Ur Irekietako Munduko Kopan

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire kidea igeriketa egokitutako Ur Irekietako Munduko Kopan lehiatu da, Sardinian, Italian. Txapelketako 3.000 metroko proban parte hartu du beste zortzi igerilarirekin batera; podiumeko hirugarren mailara igo da zubietarra

## Txintxarri


Nahia Zudaire podiumean izan da berriro. Buruntzaldea IKTKo igerilariak Ur Irekietako Munduko Kopan parte hartu du Espainiako selekzioarekin eta brontzeko domina jantzi du.

Sardiniako (Italia) San Teodoro hondartzan antolatu zen kirol ekimena eta 3.000 metroko proban, S7-S10 mailan zehazki, egin zuen igeri Zubietako gazteak.

Zortzi aurkari izan zituen Buruntzaldeako ordezkariak. Poloniako Oliwia Jablonskek (S10) hasieratik aurre hartu zuen eta 38.43,68 marka eginez lehen postua irabazi zuen.

Atzetik Zudaire eta Taylor Winner Estatu Batuarrak bigarren postuarengatik borrokatu zuten; azken horrek eraman zuen zilarra (39.53,61) eta zubietarrak hirugarren postuan amaitu zuen lehia, 40.06,40.

Buruntzaldea IKTKo ardura-dunek aipatu dutenez, denbo-



Nahia Zudaire (eskuintetik lehenena), Ur Irekietako Munduko Kopako podiumean. FEDDF

raldi hasierako entrenamenduen bateratzeko moduko iraupen luzeko lehiaketa aukera ona izan da igerilariarentzat.

Bestalde, igeriketa taldeko gainerako kideak, masterrak izan ezik lanean ari dira urriaren erdialdean liga ezberdinetan

lehiatzen hasteko. Masterrek aurki hasiko dituzte entrenamendu saioak, urriaren 2an, eta maila horretan izena emateko aukera dagoela gogorarazi dute igeriketa taldeko kideek. Inskripzioa talderen webgunean egin daiteke.

## Eguzkik ezin izan du Kopako lehia garaipenarekin hasi

Areto futboleko lehen taldeak etxean hasiko du liga; Gaintxu AFT izango du aurkari gaur, 20:50ean

### Txintxarri

Eguzki Areto Futbol taldeak ez du lehiaketa ofiziala ongi hasi; Kopako jardunaldia zuen hilaren 23an eta ezin izan zuen Oiartzun garaitu, Maialen Chourraut kiroldegian jokaturako neurketan. Gaur, hilaren 29an, Ligari hasiera emango diote Gaintxu AFTren aurka.

Talde berritua du Jose Lopezek; bigarren taldeko jokalarri ugari igo dira eta "esperientzia" emango dien fitxaketak ere egin ditu. Ederki egin dute lan lehen hitzordu horietarako prest egiteko: "Pozarren gaude osatu dugun taldearekin; talde orekatua dugu. Ez dugu helburu finkorik eta neurketaz neurketa hobetzen joatea espero dugu". Baina Eguzkiko prestatzaileak onartu bezala, aurkari zaila zuten kopako lehia, Oiartzun.

Defentsa lan ederra eginez, kontraerasoan aukera ugari izatea lortu zuen etxeko taldeak eta horietako batean, markagailuan aurre hartu zuen Lopezen taldeak. Atsedendia baino lehen gauzak aldatu ziren, ordea. Eguzkik bi akats egin eta Oiartzunek ongi baliatu zituen 1-2 jartzeko.



Kopako neurketako irudia. TXINTXARRI

Bigarren zatiaren hasiera ere ez zen hobeza izan. Aurkariak aldea irekitzea lortu zuen, 1-4 eta ondorioz, defentsan arriskatzten hasi zen etxeko taldea. Ez zen ongi atera; 3-7 amaitu zen partida.

### Liga zaila eta polita

Gaur, aldiz, ligako lehen hitzordua izango dute etxean, 20:50ean. Lopezek onartu duenez, denboraldi zaila eta polita izatea espero dute aurten: "Talde garrantzitsuen filialak igo dira mailara eta hori joko mailan nabaritu da. Ikusleek partidetaz gozatu ahalko dute".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
UEFA YOUTH LEAGUE Salzburg - Real Sociedad SAD Asteartea 3. 14:00. Salzburg, Austrian.
OHOREZKO ERREGIONALA Antiguoko KE - Ostadar SKT Igandea. 11:40. Berio, Donostian.
GORENGOEN MAILA Ostadar SKT - Allerru KE Larunbata. 18:10. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN I. MAILA Usurbil FT B - Texas CF Larunbata. 15:30. Harane, Usurbilen. Lazkao KE - Ostadar SKT B Larunbata. 16:00. Aristi Handi, Lazkaon.
OHOREZKO JUBENILA Beti Ona CD - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Beraun, Renterian.
JUBENILEN I. MAILA Ostadar SKT B - Touring CD C Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean. Texas CF - Lazkao KE B Igandea. 11:15. Michelin kirol gunean.

Danena KE C - Ostadar SKT C Larunbata. 18:00. Elbarrena, Zizurkilen.
OHOREZKO KADETEA Ostadar SKT - Kotskas Mariaren Bihotza CD B Larunbata. 14:30. Michelin kirol gunean.
KADETEEN I. MAILA Idiazabal KE B - Texas CF Larunbata. 10:00. Arizkorreta, Idiazabalen. Ostadar SKT B - Danena KE B Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean. Usurbil FT - Ostadar SKT C Igandea. 18:00. Harane, Usurbilen.
KADETE NESKAK Antiguoko KE B - Ostadar SKT Larunbata. 10:40. Berio, Donostian.
INFANTIL HANDI Ostadar SKT - Martutene KE Larunbata. 12:55. Michelin kirol gunean.
INFANTILEN I. MAILA Ostadar SKT - Euskalduna A. SD Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean. Texas CF - Billabona FKE B Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA
I. MAILA Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - Gaintxu AFT Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA AF Antxo Pec. Ferreres - Eguzki Bodegas Ayesa Larunbata. 11:30. Pasai Donibane kiroldegia, Pasaian.
KADETE MAILA Eguzki AF Goxokis Goxua-Lauburu KE Ibarra B Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOIA
KADETE ERRENDIMENDU URREA Zast Kuraye ZKE - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Arizbatalde kirol., Zarautzen.
ERRUGBIA
OHOREZKO MAILA Ordizia RT - Pasek Belenos Igandea. 12:00. altamira, Ordizian.

EUSKAL LIGA, OHOREZKO B MAILA
Arratiko Zekorrak RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:30. San Txime, Igorre, Bizkaian.
18 URTEZ AZPIKOA
La Rioja - Zarautz Beltzak RT Igandea. 11:45. Pradoviejo, Logroño, Errioxan.
16 URTEZ AZPIKOA
La Rioja - Zarautz Beltzak RT Igandea. 10:30. Pradoviejo, Logroño, Errioxan.
14 URTEZ AZPIKOA
Beltzak RT errugbi eskolako gazteek seven modalitateko topaketan parte hartuko dute. Zarautz RT izango dute lagun. Igandea. 10:00. Asti, Zarautzen.
10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA
Beltzak RTko txikiek Zarautz RTko jokalariekin batera errugbi eskolen topaketa izango dute. Igandea. 10:30. Hondarribiko hondartzan.

PILOTA
GOMAZKO PALA, 3. SENIORRA Intza KE - Mundarro 2 Igandea. 10:30. Lodibarren pilotalekuan.
XAKEA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA Herriko xake jokalarri zein Taula taldeko kideek partida bizkorren Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute. Larunbata. 16:30. Palmeta Montero gunea, Irunen.
LASTERKETA
TXINGUDI KORRIKA Inmobiliaria Urme -24. Txingudi Korrika 10K proba lehiatuko da. Larunbata. 16:30. Hondarribian.
DONOSTIAKO MARATOI ERDIA
Donostia Zurich Maratoi erdiaren edizio berria jokatuko da. Igandea. 10:00. Donostian.

# Irribarrea ahoan, mendiaz gozatzeko

250 parte hartzaile izan dira V. Mendi Martxan. Eguraldi ederraz gozatu dute Andatza eta Belkoain mendietako bideetan barrena ibiltzeko. Probako antolatzaile Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak pozarren dago jasotako iritziekin

## Txintxarri

Eguraldi paregabea lagun, 250 pertsonak parte hartu zuten igandean Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteak (LOTME) antolatutako V. Mendi Festan.

Martxa luzeko mendizaleak izan ziren lehenak eguna agurtzen. Goizeko 07:00etan atera ziren Antonio Mercero plazatik; aurretik 26,5 kilometro eta 1.350 metroko desnibel positiboko bidea zuten. Belkoain eta Andatza mendietako gailurrak

Bi ordu geroago, martxa motzari eman zion hasiera elkarteak. Umore onean Andatza mendiko bidea hartu zuren guztiek.

Antolatzaileek azpimarratzen duten modura, proba ez lehia-korra izanik, bakoitzak bere erritmorra egiteko aukera zuten eta parte hartzaileek Lasarte-Oriako inguruko mendiez gozatzeko gogoak zituztela ageri zen irteera puntuan. "Umore ona, irribarrea eta goiz polit batez gozatzeko gogo bizia" na-



Martxa luzeko parte hartzaileak, proba hasieran. TXINTXARRI

bari zirela zehaztu dute LOTMEko kideek.

Guztira 250 pertsona (92 martxa luzean eta 158 motzean) iritsi ziren helmugara eta bertan modakatu ederraz gozatu ahal izan zuten indarrak berreskuratzeko.

## Irakurketa ona

Antolatzaileak probako irakurketa positiboa egin dute eta

pozarren daude jasotako mendizaleen iritziekin. Gainera, hainbeste parte hartzaile espero ez zituztela ere onartu dute: "Ez genuen espero aurreko edizioetan bezala asko izena emanda egotea, mendiko zirkuituan egindako proben masifikazioa zela eta, baina probaren aurreko egunetan jende askok eman zuten izena".



Presa (ezkerreko irudia) eta Granado (eskuineko irudia), podiumetan. FESTAK / UTMF



## Herriko lasterkariak, podiumetan

Mendian edo errepidean Lasarte-Oriako lasterkariak ez dute atsedenik hartzen. Azken asteetan, gainera, bi herritar podiumera igo dira.

Hilaren 17an, Aloña Mendi taldeko Jon Presak Astrabuduako Herri Krosa irabazi zuen Erandion, Bizkaian. 5 kilometroko proban nagusi izan zen herritarra (16.12) eta 30 segundoko alde atera zion bigarrenari.

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartearen kide Borja Granadok, aldiz, iraupen luze proba batean lortu zuen podiuma. Hilaren 16an, Palentzian 65 kilometroko Ultra Montaña Palentina izan zen eta podiumeko hirugarren mailara igo zen. Lehen postuetan lehiatzen egon zen; bigarren sailkatuarekin egin zuen ia bide osoa. Baina eguraldiaren iragarpenean 40. kilometroan lasterketa neutralizatzea ekarri zuten eta ezin izan zuten bigarren postua borrokatu.

Horrez gain, abuztuaren 12an eta 13an, Trail de Moixeró probako Xtrail 36 km. ibilbidean parte hartu eta hamabigarren postuan (04.11.26) amaitu zuten.

Era berean, hilaren 14an, Josetxo Imaz Memoriala jokatu zen Beasainen eta Peio Fadrique herritarrek 50.37 marka egin zuten.

Eta eguraldiak horrelako probetan duen eragina azpimarratu dute. "Asko eguraldia nolakoa izango den ikusteko zain daude, eta, egia esan, arlo honetan sekulako zortea izan dugu, batez ere igandean".

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiete Lasarte-Oriako Udalari, probako babesleei eta, batez ere, aurreko egunetan eta egunetan bertan boluntario lana egin duten taldeko kide eta lagunei.



OSTADAR SASKIBALOIA / TXEMA ALONSO

## Saskibaloiko altxorak

Ostadar SKTko Saskibaloi atalak 2023-2024 denboraldian lehiatuko diren taldeak aurkeztu zituen hilaren 23an, Maialen Chourraut kiroldegian. Taldeko arduradunek dioten bezala "euren altxorak" aurkeztu zituzten, jokalaria.

Oraingoz bi talde soilik hasi dute liga, baina urrian zehar joango dira gainerakoak batzen. Horregatik,

aurkezpenaren ostean, kadete errendimendu urte mailako partidaz gozatu ahal izan zen. Urdin-beltzek Easo basket Irulearen aurka neurtu zituzten indarrak eta hasieratik borroka handi izan zen bi taldeek artean; lehen laurdena 4na berdindu zuten. Azkenean donostiarrak izan ziren garaile, 30-34.



OSTADAR IPAR MARTXA

## Pirinioetako bideez gozatzeko

Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek Otsagabian, Nafarroan, asteburu pasa egin zuten hilaren 23an eta 24an. Euriarengatik, hilaren 21ean, Mugikortasun Astearen barruan egin behar zuten saioa bertan behera geratu bazen ere, oraingoz eguraldi paregabeaz gozatu ahal izan zuten taldeko kideek. Iratiko basoan barrena ibili ziren Erreka Idorra ibilbidea jarraituz eta Muskildako baselazari ere bisita egin zioten. Bertako ipar martxa taldeko kideak lagun izan zituzten eta guztiek batera afari gozoaz ere gozatu zuten.

# Futbol taldeek garaipen ugari erdietsi dituzte

Ostadar SKT zein Texas Lasartearra elkarteetako maila guztietako taldeak liga txapelketan murgildu dira. Hemezortzi taldeetatik erdiek hiru puntuak eskuratu dituzte. Talde urdin-beltzeko Gorengo Erregional zein urdin-zuriko Erregional I. mailako taldeak liderrak dira

## Txintxarri

Ostadar SKT eta Lengokoak taldeen arteko neurketa hasi aurreko festa giroak – ikus *Egoitz Rodriguez omenaldi xumea* artikulua – partida jokatu bitartean jarraitu zuen Michelin kirol gunean; urdin-beltzek 3-0 irabazi zuten euren zaleen aurrean. Bi partida, sei gol alde eta bakar bat ere ez kontra. Ostadarrek ederki ekin dio denboraldiari eta txapelketa hasi besterik egin ez bada ere liderra da oraintxe.

Ez zen hori asteburuan herriko taldeek lortutako garaipen bakarra izan; euren mailako buru jarri den beste talderik ere bada. Etxean zein kanpoan Ostadar zein Texas Lasartearra kirol elkarteetako talde guztiak martxan dira. Nahiz eta denetarik emaitzak izan, hemezortzi taldeetatik erdiek konfiantza ematen duten denboraldiko lehen hiru puntuak eskuratu zituzten.

Nabarmentzekoak dira Erregional I. Mailan eta Infantilen



Texaseko jokalaria bat, baloiarekin, erasoko jokaldi batean. TXINTXARRI

I. mailan Texas Lasartearrak eskuratutako emaitzak; biek Euskalduna Andoaindarrak taldea izan zuten aurrez aurre. Erregionalek 7-0 irabazi zuten Andoaingo B taldearen aurka eta gazteek, aldiz, 0-8. Erregionalak gainera euren mailako buru jarri dira; ez horrela infantilak golen batez bestekoak –10-0 garaitu zuen Usurbil B– ematen dio lidergotza Tolosari.

Ostadar SKTko Erregional Ohorezkoa (1-0), Jubenilen I. mailako C taldea (1-0), Infantil Handia (0-1) zein Txikia (2-5) ere urdin-zurien infantilen egoera berean daude. Aurkaria gaintitu arren, lehen postuan berdinduak daude beste talde batzuekin batera.

Hurrengo jardunaldian berriz ere puntuak gehitu eta egoera aldatzeko egingo dute lan guztiek.

## Chourraut, Munduko txapelketako finaletatik kanpo

K1 eta Kayak kros modalitatean lehiatu da herritarra; finalerdietan kanporatua izan da bi lehiaketetan

## Txintxarri

Maialen Chourraut Eslaloneko Munduko txapelketan lehiatu da hilaren 19tik 24ra, Lee Valley-en, Britainia Handian. K1 eta Kayak kros modalitateetan parte hartu du herritarra.

Kanal ezaguna zuen lasarteoriatarrak; 2012ko Joko Olinpikoetan bere lehen domina eskuratu zuen, brontzea. Oraingoan, K1 lehiaren finalaren ateetan geratu zen. Finalerdiko saioan ederki ari zen herritarra, baina palarekin kanalaren behea jo eta denbora galtzeaz gain atea bat ukitu zuen.



Chourraut, lehian. BAT BASQUE TEAM

Kayak kros lehiaren ere finalerdia iritsi zen Chourraut. Baina gerora irabazle izango zen Kimberly Woods britainiarra ongi itxi zion bidea herritarri jaitzieran eta finalera sailkatzea ezinezkoa izan zen.

Bakarkako lehiatan finaletan egoterik izan ez bazuen ere, K1 mailako taldekako proban zilarra jantzi zuen Lasarte-Oriako piraguistak. Hilaren 19an, Olatz Arregi eta Laia Sorribesekin batera taldea osatu zuen. Jaitzieran denbora onena egin zuten, 15. atean egindako akats batek bi puntuko zigorra gehitu zien, ordea. Horri esker Australiak eraman zuen urrea.

## Paris helburu

Nahiz eta K1 modalitateko finaletatik kanpo geratu, herritarra 2024ko Joko Olinpikoetarako plaza lortu zuen Espainiako selekzioarentzat. Txartel horrek ez du jaberik oraindik eta Parisen lehiatu ahal izateko Lasarte-Oriako piraguistak gogor egin beharko du lan denboraldi berrian.

## Egoitz Rodriguezi omenaldi xumea

Gorengo Mailako taldearen partidak ikustera joatera ohituta claudenei arraroa egiten zaie oraindik eskuin nahiz ezker hegaletara begiratu eta Egoitz Rodriguez jokatzeko ez ikustea, 10 zenbakidun kamiseta urdin-beltza soinean.

Alebinetatik hasi eta lehen taldera iritsi arte, hamabost denboraldiz jokatu du Ostadarren. Gutxi dira kolore urdin-beltzei horrenbeste denboraz leialak izan eta kirol ibilbide osoa Lasarte-Oriako klub horretan jorratu dutenak, eta, horregatik, hilaren 23an merezitako omenaldia jaso zuen Ostadar-Lengokoak partida hasi aurretik, ekainera arte taldekide izan zituenen eta Imanol Bardaji lehendakariaren eskutik. Aldageletatik jaitsi eta ilara luzea osatu zuten bi taldeetako jokalariek eta entrenatzaileek. Segidan atera zen Rodriguez, Bardaji alboan eta Dani Lopez eta Julen Lopez kapitainak atzeraxeago. Zelai erdira iritsi, makil eta argazki bana jaso eta ohorezko sakea egin zuen.



Omenaldia, ederra. TXINTXARRI

## Jon Martin, bikain Youth League-n

Jon Martin herritarra UEFA Youth League txapelketa lehiatzen ari da Real Sociedad taldearekin. Sanse, Real C eta Ohorezko jubenilek osatutako taldea D multzoan dago eta Milango Inter, Salzburg eta Benfica ditu aurkari lehen taldearen antzera.

Egutegiari dagokionez ere, Champions Leagueko egunekin bat egingo dute gazte taldearen norgehiagoek eta abenduaren 12ra arte, jokatu da lehiaketako lehen fasea.

Beraz, lehen neurketa hilaren 20an jokatu zuten Zubietan eta Milango Interrekin neurtu zituzten indarrak; hiruna berdindu zuten. Lasarte-Oriako defentsa hamaikakoan atera zen zelaira eta lan ederra eginez, bi gol sartu zituen bigarren zatian. Urriaren 3an, asteartearekin, Salzburg izango dute aurkari Salzburgen, Austrian.

## Herriko errugbi jokalariek lehiari ekiteko prest daude

Euskal Ligako Zarautz Beltzak taldeak Arratiko Zekorrek taldearen aurka hasiko du denboraldia

## Txintxarri

Baloi obalatu berrira esku esku ikusiko dugu hilaren 30etik aurrera. Lasarte-Oriako errugbi jokalariek ligari hasiera emango diote.

Zarautz Beltzak taldea Euskal Ligako Ohorezko B mailan lehiatuko da. Herritarrez betetako taldeak Arratiko Zekorren aurka jokatu du lehen jardunaldia.

18 urtez azpiko zein 16 urtez azpiko Zarautz Beltzak taldeek, aldiz, La Riojaren aurka lehiatuko dira

Espainiako Ohorezko Mailan ere izango da aurten lasarteoriatarrak, Alex Saleta. AMPO Ordiziak ekaineran fitxatu zuen eta urriaren 1ean, Pasek Belenos izango dute ligako lehen aurkari.

## Eskola ere lehiari

Beltzak Errugbi Eskolako gaztetxoak ere topaketekin hasiko dira. 14 urtez azpiko gazteek seven modalitateko saioa izango dute eta 10 urtez azpiko zein 12 urtez azpiko jokalariek Hondarribiako hondartzan jokatu dute.

## KOMIKIA



### ZORION AGURRAK



**Nahia**  
Zorionak printzesa!!!  
Sei muxu handi!!!  
Amona Mertxeren partetik

### Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

#### Internet

- txintxarri.eus/ zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

#### Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

### GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 29	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 30	GIL
IGANDEA, 1	GIL
ASTELEHENA, 2	URBISTONDO
ASTEARTEA, 3	GANDARIAS-URIBE
ASTEAZKENA, 4	DE ORUE
OSTEGUNA, 5	DE MIGUEL

#### Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

#### GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

#### 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

### TELEFONOAK

#### UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

#### LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 00
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

### EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 29



Larunbata, 30



Igandea, 1



Astelehena, 2



Asteartea, 3



Asteazkena, 4



Osteguna, 5



## Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

### SUDOKUA

5	6			9				
		7			6	4		5
	2	9		1			8	6
	9		4			2		
		8	9	6	5	3		
4		5			7		1	9
	7	3	8			5		
8	5			7	3		6	
			6				7	3

Sudoku10.net

### OHARRAK

#### Katekesiko saioen hasiera

Katekesiko 2023-24 ikasturte berriko saioak urriaren 7an, larunbatarekin, hasiko dira San Pedro parrokian.

Arduradunek jakitera eman dutenez, 10:30ean, LH1 mailan dauden haur eta familiak lehenengo bilduko dira eta euren eskutik, saioen nondik norakoak ezagutuko dituzte.

Saio horietan parte hartzeko familiek izena eman behar dute. Inskripzioa urriaren 6an, ostiralarekin, 19:00etan parrokiako bulegoan egingo da.

Parrokiako arduradunek gogoratzen dutenez, bederatzi urtekin lehenengo jaunartzea hartu dezaten katekesiko beharrezkoak diren hiru urteak egin behar dira.

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

**SALDU**  
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 089 380 zenbakira.

### ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen dut Urdaneta erakinean, beheko solairuan. Sarbide eroso. Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.

### LANA

#### ESKAITZA

Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaiak eskainiko dituzten irakasleak behar dira ikasturte osorako. Interesatuak bidali CVa info@zitek-akademia.com helbidera.

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

Bi umeei klaseak emateko neska edo mutil bat behar dugu. Bat LH4. kurtsoan dago eta bestea DBH4en. Utzi mezua whatsappen zure datuekin, adina, ikasketak, orduko prezioa... 688 74 09 31.

### ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatua egingo da. Zubieta bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubieta bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

### BESTELAKOAK

#### OPARI

Katakumeak oparitzeko. Oso politak! Harremanetarako telefonoa: 628 90 41 30.

## ESKELA


**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943-37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzian

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



### Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

# txintxarri

*Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz*



[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

## txintxarri

[WWW.TXINTXARRI.EUS](http://WWW.TXINTXARRI.EUS)

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

**Administraria**  
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**  
Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**  
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artebe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

**Banatzaileak:**  
Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

**Publizitatea**  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**Egoitza nagusia**  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 29

**LASARTE-ORIA Kontzentrazioa**  
Sare Herritarrak eta Lasarte-Oriako Presoen Aldeko batzordeak berriro ekingo diote Azken Ostirala egiteari. Kalera atera eta euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde manifestatuko dira.  
**Elizatze plaza, 20:00etan.**

## IGANDEA 1

**LASARTE-ORIA Urteurrena**  
TXINTXARRI aldizkariak herrian eta herritarrekin ospatuko du bere 30. urteurrena. Hau da prestatu duen egitaraua:  
**11:30ean**, irri, kantu eta dantza Porrotx, Xumela korua eta Oaintxe in deu! txarangarekin. TXINTXARRI-ri buruzko marrazkiak ekartzen dituzten umeek oparixto bat jasoko dute trukean. Okendo plazan izango da jarduera.  
**12:00etan**, talde argazki erraldoia, Okendon.  
**12:15ean**, ibilbidearen errepassoaren erakusketaren irekiera, Jalgi kafe antzokian.  
**12:30ean**, topa-pintxoa, Jalgin.  
**Okendo plaza, 11:30ean.**

**LASARTE-ORIA Ospakizuna**  
Adinekoen Omenaldiaren Asteari ekingo diote, jarduera hauekin:  
**11:30ean**, bandera igotzea, Biyak Bat egoitzan.  
**12:00etan**, meza, San Pedro parrokian. Amaitutakoan, kalejiran joango dira kultur etxeraino, umore ikuskizun batez gozatzeraz.  
**14:00etan**, bazkaria, Michelin kirol gunean. Ostean, Ibai Berriak taldearen eskutik dantzaldia izango dute.  
**Biyak Bat elkartearen egoitza, 11:30ean.**

## ASTEAZKENA 4

**LASARTE-ORIA Ospakizuna**  
Adinekoen Omenaldi Asteari jarraituko dute.  
**18:00etan**, bingoa, Biyak Bat elkartearen egoitzan.  
**20:00etan**, sari banaketa, egoitzan bertan.



**LASARTE-ORIA Ospakizuna**  
Adinekoen Omenaldi Asteari ekingo diote, Biyak Bat egoitzan bandera igota. Ekitaldi horren ostean makina bat jarduera aurrera eramango dituzte urriaren 8ra arte.  
**Herrian barrena, urriaren 1etik 8ra (bi egunak barne).**

**Biyak Bat elkartearen egoitza, 18:00etan.**

## OSTEGUNA 5

**LASARTE-ORIA Ospakizuna**  
Adinekoen Omenaldi Asteari jarraituko dute. Duo Imperial taldeak kontzertu bat emango du Manuel Lekuona Kultur Etxean.  
**Kultur etxea, 19:30ean.**

## OSTIRALA 6

**LASARTE-ORIA Ospakizuna**  
Adinekoen Omenaldi Asteari jarraituko dute.  
**11:00etan**, Ondo ibili paseoa, Okendo plazatik abiatuta.  
**12:00etan**, Ondo ibili paseoa, Antonio Mercero gunetik aterata.  
**17:00etan**, bideo emanaldia, Biyak Baten egoitzan.  
**Herrian zehar, goiz eta arratsalde.**

**LASARTE-ORIA Festa**  
Zabaletako auzotarrek Udazken Festa ospatuko dute.  
**18:30ean**, mural prestaketa, haurrekin.  
**19:30ean**, afari merienda.  
Bitartean, Samba Badago taldeak kontzertua emango du.  
**Zabaleta auzoko Basotxo plaza, 18.30ean.**

**LASARTE-ORIA Zinema**  
Urriko lehen emanaldia egingo du Okendo Zinema Taldeak: Itsaso Aranak zuzendutako *Las chicas están bien* filma proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute.  
**Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.**

## LARUNBATA 7

**LASARTE-ORIA Ospakizuna**  
Adinekoen Omenaldi Asteari jarraituko dute. Okendo plazatik abiatuta IX. Ibilaldi Neurtua gauzatuko dute.  
**Okendo plaza, 11:00etan.**

## IGANDEA 8

**LASARTE-ORIA Ospakizuna**  
Adinekoen Omenaldi Asteari jarraituko dute.  
**10:40ean**, kalejira, Biyak Bat elkartearen egoitzatik abiatuta.  
**11:00etan**, meza, Ama Brigitarren komentuan.  
**12:00etan**, urrezko ezteiak bete dituzten bikoteei orroigarriak emango dizkiete. Horren ostean, Herriko Etxean bazkaldu eta dantzaldia izango dute.  
**Biyak Bat elkartearen egoitza, 10:40ean.**

## OSTIRALETAKO EMANALDIAK, 20:00ETAN

Okendo Zinema Taldeak urriaren 6an ekingo die aurtengo ikasturteko proiektzioei, ostiralarekin. Horraino, aldaketarik ez. Bai, ordea, ordutegian, eragile horretako kideek erabaki dutelako paseak bi ordu aurreratzea. Hortaz, 20:00etan hasiko dira hemendik aurrera. Itsaso Arana zuzendari nafarraren *Las chicas están bien* filmaren emanaldia izango da aurrenekoa. Bigarrena, berriz, Victor Erice bizkaitarraren *Cerrar los ojos*. Bi pase egingo dituzte, urriaren 20an bat (ostirala, 20:00etan) eta 22an bestea (igandea, 19:30ean).

Ostiraletako emanaldiak aurreratzea erabaki dute arrazoi hauengatik: "Gaur egun, pelikula

gehienek bi ordu edo gehiago irauten dute, eta, 22:00etan ematen hasiz gero, berandutu egiten zaigu; uste dugu pandemiak eragin duela gure ohituretan, lehenago etxeratze joera dugu orain. Gainera, bi ordu lehenago hasteak erraztu egingo digu gonbidatuak ekartzea; oso interesgarria iruditzen zaigu ikus-entzuleek egile eta aktoreekin iritziak partekatu ahal izatea". Maiatzeko proiektio bat jarri dute horren adibidetzat, *20.000 especies de abejas* filmarena. "Estibaliz Urresola zuzendaria ekarri genuen, aretoa betea zegoen".

Bestalde, Euskal Dokumentalen Zikloa antolatzen jarraituko dutela aurreratu dute.



LABURPENEA

**'Las chicas están bien'**  
**Zuzendaria:** Itsaso Arana. **Gidoia:** Itsaso Arana. **Argazkia:** Sara Gallego. **Ekoizleak:** Los Ilusos Films, Elastica Films. **Herrialdea:** Espainia (2023). **Iraupena:** 85 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Barbara Lennie, Irene Escolar, Itsaso Arana, Itziar Manero, Helena Ezquerro, Gonzalo Herrero.

## Pertsonak ezagutu, pertsonaien bidez

Lau aktore eta idazle bat haize errota zahar baten bueltan elkartuko dira, hirigunetik urrun, antzezlan bat entseatzeko asmotan. Sorginkeria baten istorioa biziko dute zapo, ibai, eskutitz eta baita printze despistatu batekin ere. Entseatu ahala, antzezlanak jasotzen dituen elementuen bidez elkar ezagutuko dute bost

protagonistek eta bakoitzak interpretatu behar duen pertsonaien araberako bizipenak partekatuko dituzte, hala nola, maitasuna, edertasuna, laguntasuna edota heriotza.

Itsaso Arana zuzendari nafarraren lehenengo film luzea da *Las chicas están bien*. Karlovy Vary zinema festibalean pelikula onenaren izendapena jaso du.



943-36 63 77  
[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)



Zorionak!  
 txintxarri <sup>30</sup> urte!



RPS 181/19

Lasarte-Oria  
 Ola kalea, 10

Tolosa  
 San Frantzisko, 39

Elgoibar  
 San Bartolome, 22

## Argi, ikasturte berria!

Zatoz! aukera zabala dugu ikasketa mahairako eta zutikako lanparetan



[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)



Zorionak!  
 txintxarri <sup>30</sup> urte!



Zutikako lanparak  
 Bulego-lanparak  
 LED argi erregulatzailerekin

Haur, gazte eta helduentzat

Eskatu whatsapp bidez!

600 85 75 86



Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

# Maitete



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Zorionak!  
 txintxarri <sup>30</sup> urte!

Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943-36 48 86 • [www.mbetelu.com](http://www.mbetelu.com)